



José Antonio Campos Granados

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburua
eta *Haurreskolak* Partzuergoko Lehendakaria

Haurreskolak Partzuergoa Eusko Jaurlaritzak eta EAEko udalek osatutako erakunde publikoa da, bere helburua 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako Haur Eskolen kudeaketa osoa burutzea delarik. Ikasturte honen hasieran Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta Nekazaritza eta Arrantza Sailak, Eusko Jaurlaritzaren izenean, eta EAEko 31 udalek baino gehiagok, udalerrri horietako Haur Eskolen kudeaketaz arduratuko den *Haurreskolak* Partzuergo publikoa eratu dute. Lehen aldiz eta aitzindari izanik, adin hauetako haurrek zein beren familiek dituzten beharrei kalitatezko erantzun egokia emateko gai den eredu propio, espezifiko eta originala dakar Partzuergo honen eraketak berarekin.

Partzuergoak kudeatutako Haur Eskolek egintza mota ezberdinei erabateko erantzun orekatua eman nahi diete: hezkuntzaren eta gizartearen arloan.

Hezkuntza-arloari dagokionez, ukaezina da haurrei, jaiotzen direnetik, ematen zaien arretaren garrantzia. Haurraren bizitzaren lehen hilabeteak eta urteak erabakigarriak dira nortasunaren garapenean. Lehenik eta behin, familiaren beraren egitekoa da dagokigun hau, baina Haur Eskolak berak ere arreta honetan parte hartu ahal du eta egin behar du, familiari laguntza eta orientabideak emanez eta haurraren garapenean sozializatorako eta nortasunaren hazkuntzarako eremuak eskainiz.

Gizarte-arloari bagagozkio, 2001eko ekaineko seme-alabak dituzten Familientzako Laguntzen Erakunde arteko Planak gurea bezalako gizarte aurreratuaren premiei erantzuna eman behar izatea ezartzen zuen eta horretarako, familia- eta langile-bizitza erraztu, eta bermatuko dituzten neurriak hartu behar izatea, geure honetan emakumea lan-mundurutzen ari delako eta familia-mota berriak eta oso egoera ezberdinetan azaltzen baitira.

Partzuergoak kudeatutako Haur Eskola berriek, Europako eredu aurrerakoenei jarraiki, kalitatezko erantzuna eman behar die alderdi biei. Izan ere, horrexegatik dauka Haur Eskola bakoitzak berriazko Hezkuntza eta Laguntza Proiektua. Zalantzarik gabe hezkuntza-proiektua da, adin hauetako haurren behar psiko-ebolutibo eta pedagogikoei erantzutea bermatuko duena. Eta bestetik, eduki sozial handiko proiektua, familia eta haurren ordutegi eta egutegi malgueli, instalazio egokienekin eta behar adinako zerbitzuekin erantzungo dien moduko Haur Eskola barne hartzen duena.

Udalen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzaren harremanari esker eratu da *Haurreskolak* Partzuergoa eta Euskadiko udalerritik askotan Haur Eskolak ezarri dira. Delako formula horrek kalitate hobeko erantzuna bermatzen du, udalerraren egoera eta beharretara egokituagoa eta familiengandik hurbilago dauden toki-eragileen esku-hartze zabalagoa. Honako hau ez da bakarrik udalerritik txiki edo landa-inguruneetan nabarmena, hiri-dentsitate handiagoko zonaldeetarako ere oso komenigarria baita.

Xede diren helburuak lortu ahal izateak, egiteko honetan esku hartzen duten eragile guztien arteko komunikazio-bide iraunkor eta sakonak eskatzen ditu, hots: udalak, gurasoak, hezitzaileak eta Haur Eskolak. Horretan lagundu nahi du web orri honek, beharrezkoa den informazioa denentzako eskura jarriz eta Partzuergoarekin berarekin etengabeko komunikazio-bidea irekiz, iritziak, nahiak, zalantzak eta iradokizunak jakinaraz daitezzen.

Ilusio eta itxaropenez beteriko proiektua duzue aurrean. Horrekin aberastu eta malgutu egiten da gure hezkuntza-sistema, une honetan euskal gizarteak eskatzen duenari erantzuteko egokiagoa. Eskerrak eman nahi dizkiet, 0 eta 3 urte bitarteko hezkuntza eta laguntza tartea arautzen, antolatzen eta abiarazten ahalegindu diren guztiei eta hau ezagutu eta bertan parte hartzen duzuen guztiok –erakundeak, gizarte-eragileak, gurasoak- ilusio eta indar berarekin egitea espero dut.

Agur bero bat,



José Antonio Campos Granados

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburua
Haurreskolak Partzuergoko Lehendakaria